

3/2020 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK MAIATZAREN
7an EGINDAKO BILKURA BEREZIA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

KONTZEJUKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko
Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko
lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Izarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko
alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hogeiko maiatzaren zazpian, goizeko hamabietan, era telematikoan Zoom aplikazioa erabilia, aldamenean adierazitakoak bildu dira Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Ekonomia eta Gizartea Suspertzeko Planerako NUKFk egindako proposamenak biltzen dituen dokumentua onestea

1. PUNTUA. Ekonomia eta Gizartea Suspertzeko Planerako NUKFk egindako proposamenak biltzen dituen dokumentua onestea.

Lehenik eta behin, lehendakariak bertaratutakoak agurtu eta barkamena eskatu die egungo osasun larrialdi egoera dela eta, lehenago biltzeko deitu ahal izan ez dituelako. Udalak krisi honetan egiten ari diren lana azpimarratu eta egindako azken jarduketak azaldu ditu labur. Horien artean bereziki azpimarratu du Toki Administrazioaren Kontseilaritzaren eta Zuzendari Nagusiaren bitartez Nafarroako

Gobernuarekin abiatutako foroa. Bertan, lehendakariordeekin batera, egunero biltzen dira eta toki entitateek dituzten aldarrikapenak egiten dituzte. Gainera, beharrezkotzat jotzen dutenean, Nafarroako Gobernuko beste departamentuetako (besteak beste Eskubide Sozialen Departamentuko eta Hezkuntzako) arduradunen parte-hartzea ere eskatzen dute. Horri esker, alor horiekin lotutako gaiak zuzenean landu ahal dituzte. Foro horretan, hainbat eskaera helarazi dira, hala nola administrazio- eta kontratu-prozeduren etendura kentzea, gizarte-zerbitzuetarako sortutako Estatuko Funtsari dagokion zatia gizarte zerbitzuen mankomunitateen artean banatzea, eta irekitzen joan beharko duten jarduera eta zerbitzu guztietarako protokoloak eta bermeak lehenbailehen prestatu eta ezagutarazteko beharra, toki entitateek horiek denbora nahikoarekin aplikatu ahal izan ditzaten. Betiere, kutsadura berriak ekiditeko helburuarekin lan egitea eskatzen da.

Ondoren, lehendakariak denek ezagutzen duten dokumentuaren errebasoa egin du. Azaldu duenez, NUKFren zerbitzu teknikoek egindako proposamena da eta denei igorri zitzaizen ekarpenak egin ahal izateko. Zehaztu duenez, ekarpen bakarra jaso zen aurretik ere igorri zena.

Dokumentuari dagokionez azpimarratu du Gobernuak Foru Komunitateko Ekonomia suspertzeko iragarri duen plana osatzeko prozeduran NUKFren proposamen gisa aurkezteko egin dela. NUKFk dagoeneko prozesu horretan parte hartzeko nahia adierazi zuen eta dokumentu horretan agerian gelditzen da toki entitateek susperraldian izan behar duten garrantzia eta protagonismoa. Halaber, idatziak toki entitateek horretarako dituzten baliabideak eta gaitasunak adierazten ditu. Bestalde, dokumentuan biltzen diren oinarrien garrantzia azpimarratu du; batez ere, osagarritasunaren oinarriarena. Horren arabera, administrazioek elkarlanean lan egin behar dute ekintzak eta neurriak ez gainjartzeko.

Era berean adierazi du proposamenak biltzen dituen dokumentuak, batetik, estatuko eta erkidegoko administrazioei zenbait neurri hartzeko eskatzen diela eta, bestetik, toki entitate bakoitzean har litezkeen neurrien katalogo bat proposatzen duela. Proposamen horietako batzuk adierazi ditu, esate baterako, Toki Inbertsioen Plan berria. Halaber, dokumentuak jasotzen dituen bost jardunerako ardatzen errebasoa egin du.

Horren ondotik, lehendakariak bertaratutakoei hitza eman die. Lehenik, Oroz Antsoaingo alkate jaunari txanda eman dio hura izan delako Batzorde Betearazleko Bilduko beste kideekin batera ekarpenak aurkeztu dituenetariko bat. Oroz jaunak adierazi duenez, proposamenarekin ados daude, orokorrean, eta aurkeztuko dituen proposamenak gehigarri gisa egiten ditu. Azaldu duenez, sarrera Nafarroaren errealitatera gehiago egokitu beharko litzateke. Bestalde, proposatzen diren neurriak lantzeko sektore arteko mahai bat sortzeko beharra adierazi du. Proposamenean dauden neurriei dagokienez adierazi du berriz, batzuk osasun krisiak sortutako kalteak gutxitzeko helburua dutela, besteak aldiz, suspertzeko neurriak direla. Proposatu duenez, beharrezkoa izanen litzateke dagoeneko onetsi diren neurriak zeintzuk diren argitzea koordinatuta eta gainjartzerik gabe jarduteko.

Idazkari Nagusiak hartu du hitza. Azaldu duenez, gobernuak adierazi duen moduan, Nafarroako Ekonomia Suspertzeko Plana egiteko berriazko foroak abiatuko dira eta toki entitateen parte hartzea aurreikusi da horietan. Foro horietan, hain zuzen ere, NUKFk onetsitako dokumentuak biltzen dituen

neurriak landu eta zehaztu beharko dira.

Ondoren, Romero Aranguren Ibarreko alkate jaunak hartu du hitza. Adierazi duenez, garrantzitsua da, batetik, toki entitateen kontuei begiratzea gastu handiei aurre egin beharko baitiete, besteak beste, kontratuen eteteak sortutako gastuei, garbiketarako gastu bereziei eta abar. Bestetik, garrantzitsua da kontuan hartzea toki entitateen diru-sarrerak gutxitu egingo direla zenbait tasa ez direlako kobratuko eta abar. Horregatik uste du, lehenengo ekonomia suspertzeko zer gerakin gelditzen den ikusi behar dela. Ados agertu da neurriak eta protokoloak ezartzearekin baina, adierazi duenez, udalek arazo handiak izango dituzte edukiera eta abar kontrolatzeko.

Inbertsio Planari dagokionez berriz, adierazi du ez direla milioi askoko inbertsioak behar. Aitzitik, toki plan bat behar dela adierazi du non gastatu daitekeena adieraziz eta teknologian inbertitu beharra azpimarratuz.

Bestalde, nabarmendu duenez, krisiak edadetuengan eragina izaten ari du bereziki eta, horregatik, konfiantza berreskuratzen laguntzeaz gain gune seguruak sortu behar zaizkie. Azkenik, bi gai garrantzitsu jarri ditu mahai gainean: udako kanpaldiak eta igerilekuak.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, eskertu egin du NUKFk krisi honetan egindako lana eta egoeraren aurrean gidari lan ona egin duela uste du. Esan duenez, onetsiko diren dirulaguntzek arinak izan behar dute, libreki erabaki beharreko funtsen sistema baten bidez edo transferentzien funts baten bidez. Halaber adierazi du zerga-politika proportzionala, bidezkoa eta solidarioa landu behar dela; iruzur fiskalaren kontra egiten duena. Esan du, betalde, denek nahi dituztela saltokiak, autonomoak eta abar diruz lagundu baina garrantzitsua iruditzen zaiola oinarritzko dokumentu bat egitea udal bakoitzean onetsi ahal izateko.

Uste du halaber, altxortegiaren alorrean tentsioak egon ahal direla eta, horregatik, arduratsuak izatea eta presaka neurririk ez hartzea komeni dela. Bestalde, Jarduera Ekonomikoen Zergatik jarduera eteteagatik dagokion zatia kentzeko formula bat proposatu du eta enplegu plan handi bat egiteko beharra adierazi, toki entitateentzako ekarpena handituko duena toki esparruan kontratazioak egin ahal izateko. Azkenik, inbertsio planaren inguruan adierazi du etorkizunera begira hobe dela eta Federazioak eten digitalaren ingurukoak aldarrikatzen jarraitu behar duela.

El Sr. Fabo jaunak, Marcillako alkateak, hitza hartu du esanez dokumentua gehio landu beharra zegoela eta espero duela Nafarroako Gobernuak osatuko duen Ekonomia Suspertzeko Plana parte-hartzaileagoa izatea. Idatziaren sarreran toki entitateak gauza askotan aintzidari izan direla adieraztea proposatu du. Inbertsio planaren inguruan ordea dio, onetsi direnekin alderatuta ezberdina izan behar duela.

Toquero Tuterako alkate jaunak adierazi du bera kritikoagoa izango dela NUKFrekin: ez zaio iruditu federazioa tresna erabilgarria izan denik eta zenbait gairen inguruko erabakiak hartu beharra izan dituztenean, kaleen desinfektatzea kasu, kritikak jaso dituzte. Era berean, kritikatu du berrogeita hamar

egun ondoren egiten duten lehenengo bilera izatea. Proposamena biltzen duen dokumentuari dagokionez adierazi du Batzorde Betearazlean gehiago landu behar zela.

Lehendakariak erantzun du esanez, kaleen garbiketari dagokionez, protokolo bat onestearen zain zeudela uste baitu honelako osasun krisi batean osasuneko irizpideei jarraiki jardun behar dela. NUKFren jardunari dagokionez esan du uneoro denen esanetara egon dela edozein gai jorratzeko eta edozein proposamen jasotzeko baina orain arte ez duela halakorik jaso.

Toquero jaunak adierazi du NUKFren koordinazio-lanari egiten dion kritika eraikitzailea dela.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak esan du, egunero Nafarroako Gobernuaren ordezkariekin egiten diren bileren lekuko dela, eta zehaztu du NUKF ez dagoela, soilik, informazioa emateko baizik eta toki entitateak ukitzen dituzten gaien inguruko iritzia osatzeko eta helarazteko ere.

Ferrer jaunak, Erriberako Mankomunitatearen lehendakariak, adierazi du zinegotzi gisa proposamen asko egitea suertatu zaiola eta jarduketa asko egitea, besteak beste, Tuterako ospitalerako zainketa berezietako unitaterako hamar ohe gaitzea.

Maya Iruñeko udaleko alkate jaunak hizpide duten ekonomia eta gizartea suspertzeko planaren proposamenarekin jarraituko den prozesuaren inguruan galdetu du. Zalantza sortzen dioten zenbait gai daudela adierazi du, esate baterako, tokiko erosketa kontsumitzea. Halaber dio beste gauza batzuk kendu ahal direla eta adierazi du gizarte eragile guztien rola nabarmendu beharko litzatekeela eta ez soilik partzuergoena.

Lehendakariak adierazi du, helburua dela igorri dieten oinarrizko dokumentua abiapuntutzat harturik dokumentu osatuagoa egitea Batzorde Betearazlearen kideek egindako ekarpen guztiekin. Ondoren, dokumentu osatu hori NUKFren proposamenak biltzen dituen dokumentu gisa igorri nahi zaio Nafarroako Gobernuari kontuan har dezan Foru Komunitateko Ekonomia Suspertzeko Plana egiterakoan.

González Vianako alkate andreak adierazi duenez, ez du gustuko izan erakutsi den jarrera kritikoa eta NUKFren langile, lehendakari eta lehendakariordeei bere babesa adierazi die egindako lanagatik. Bestalde uste du, bileran esandako guztia gehitu daitekeela dokumentuan eta toki ekintzako taldeen garrantzia nabarmendu du. Azkenik, ekarpen guztiak kontuan hartu eta dokumentuan islatzeko eskatu du.

Ferrer jaunak ere NUKFk egindako lana eskertu du.

Adierazpen gehiagorik ez dagoenez, lehendakariak hartu du hitza. Adierazi duenez, egindako ekarpen guztiak dokumentuan sartuko dira toki entitateen proposamenak bilduko dituen azken dokumentu bat osatzeko eta sortuko diren foroetan eztabaidatu eta zehazteko.

Horrenbestez, azaldu du behin ekarpen guztiak dokumentuan sartzen direnean, dokumentua Batzorde Betearazlearen kide guztiei igorri eta, ondoren, Nafarroako Gobernuko Lehendakariari helaraziko zaiola.

ERABAKI DA:

Batzorde Betearazlearen kideek egindako ekarpen guztiak proposamenak biltzen dituen dokumentuan sartzea eta, behin sartuta daudela, toki entitateek egiten duten proposamen bateratu gisa aurkeztea Nafarroako Gobernuko Lehendakariari.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hamalauak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.